_elkarrizketa:

IKER ARZA

> “Beste kirol batzuk baino askoz garbiagoa da Kick-boxing-a” 12.or

Kirola

Ehun gimnastatik gora igandeko VIII. Aresketa txapelketan 12. or.

Jendartea

Erabakitzeko eskubidea josteko ekimenak apirilaren 25ean 3. or.

Iritziak:

JULEN ARZUAGA 2. or.
MAIDER IGLESIAS 7. or.
TXANI RODRIGUEZ 11. or.
ANUNTXI ARANA 12.or
BELATE OLABARRIA 16. or

aiaraldea.eus

Aiaraldeko hamabostekaria
2015 /// Apirilak 16 ///
OSTEGUNA
32. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus

4.215 ETXE HUTS Etxebizitzen %20,4 hutsik dago Aiaraldean

Argazkia: **Jon Catalan**

Bere mailarik gorenean dago Nuria & Raquel dantza akademia

18 urteko ibilbidean zehar izan duen mailarik gorenenean dago Laudioko Nuria & Raquel dantza akademia. Eskola horretako zenbait taldek lehengo postuak lortu dituzte Espainiako Anaprode dantza lehiaketan. Horietako batzuk epaimahaiak aho batez erabakita atera ziren garaile. Maiatzaren lehen egunetan izango da lehiaketaren finala, Tarragonan. Bienbitartean akademiako haurrek entseatzen jarraitzen dute, Nuria eta Raquel Perez Alvarez ahizpen gidaritzapean.

Hamar ikaslerekin hasi bazen ere, gaur egun 200 dantzari batzen ditu ballet klasikoan espezializatutako akademiak.

AMURRIOKO JAI KUADRILLAK: 50. urteurrena ospatuko du Euskotarrak koadrilak apirilaren 18an. Trot-Art taldeak ere bete du mende erdi. 7 or.

Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

GUREKIN ERE EUSKARAZ!

JAIETARAKO PRODUKTU PERTSONALIZATUAK
KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU ETA LORTUKO DUGU///
SERIGRAFIA, BORDATUA, BINILOA, INPRESIO DIGITALA

_iritzia

Julen
Arzuaga
LEGEBILTZARKIDEA

_Leihotik

Elkartasuna eta maitasuna

Eduardo Galeanok kontatzen zuen ipuin zoragarri batean preso politikoek debekatuta zeuzkatela txoriak, tximeletak, bikoteak, hondartzak, hodeiak... irudikatzen zituzten argazki edo marrazkiak. Askatasuna islatzen omen zuten. Neskato batek txorien marrazki bat egin zion bere aitari eta kartzela-zainek konfiskatu zioten. Hurrengo bisitarako marrazkiak zentsura pasatu zuen: "Zuhaitz bat! -esan zuen aitak- Zeinen polita! Eta puntutxo horiek zer dira, frutak? Shhh, ez zaitzatela entzun! –isildu zuen neskatxak- Txorien begiak dira, hostoen artean ezkutatuta!".

Hemen ere, preso politikoekiko elkartasuna debekatuta dago. Abokatuek, psikologoek, medikuek ezin dute euren jardun normalizatua bete. Debekatuta dago asistentzia juridikoa, sanitarioa, ekonomikoa, humanoa... luzatzea presoei. Senidea izatea bera ere delitua da.

Pasa den hilabetean Pablo atera zen kartzelatik zigorra beteta. Laster Isidrok eta Patxok jarraituko dute Laudiorako bidea, euren larruan zehaztuta ez dagoen delitu bat ondo ordainduta, errebeldia delitua garesti ordaintzen baita Espainiar estatuan. Injustiziaren zama astunarekin, normala izango litzateke Pabloren ezpainetatik amorrua edo gorrotoa entzutea. Ez da horrela. Hein batean, Aretan esan zuen moduan, "pazientzia eta konfiantza" bere alde dituelako. Beste apur batean, oztopoen gainetik, ziega ilunera txoriak hostoen artean ezkutatuta helarazi dizkiogulako. Etengabe. Elkartasuna eta maitasuna ere euren alde dituztelako.

Kimetz
Elektrikaria

Nik ez dut zailtasunik izan. Baina ikusten dut kuadrillakoek ezin dutela egon alokairuan ere ez. Alokairuak garestiak dira eta lan baldintzak oso pobreak. Hutsik dauden etxebizitzekin okupazioa da bidea. Badaude etxebizitza asko ez direla inoiz beteko eta horiek hartu behar dira.

Markel
Ikaslea eta langilea

Emantzipatzea oso zaila da gaur egun. Ez dago dirurik, lan gutxi dago eta dauden lanetan diru askorik ez. Alokairuak ere oso garestiak dira. Laudion adibidez 500-700 eurotakoak dira. Eta hori soldata osoa da ia, ez zaizu bizitzeko ezer geratzen. Alokairuak merkeagoak izatea mesede handia izango litzateke guztiontzat.

_GALDERA

Zer zailtasun ikusten dituzu etxebizitza lortzerako orduan?

BIDEOA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.

Maitane
Langabetua

Nire gurasoekin bizi naiz ni. Ez dago lanik. Ez dugu dirurik eta, ondorioz, ezin gara etxetik atera. Etxebizitzen prezioa ere garestia da, baina faktore garrantzitsuena lan falta da. Etxe hutsak libre utzi beharko liratekeela uste dut, alokairu sozial batekin, jendeak hartu ditzan.



Ariane
Ikaslea eta langilea

Aita eta amarekin bizi gara oraindik. Gaur, etxebizitzen prezioak jaitsi egin diren arren, oso garesti egoten jarraitzen dute. Lana ere finkatu beharko litzateke. Orain egiten diren kontratuak definitu gabeak dira, eta ondorioz ezin zara ezertara konprometitu. Etxebizitza hutsei prezioa jaitsi egin behar zaie.

Alicia
Hezitzailea

Gaur egun etxebizitzarekin dauden arazoak ikusita nik uste dut garrantzitsua izango litzatekeela alokairu merkeak sustatzea jende gaztearentzat, horrela orain hutsik dauden pisuak baliatu ahal izateko. Udalak mugitu ahalko lirateke hori sustatzeari begira, jabeekin bilduaz soluzio bat ateratzeari begira.

_gutunak

Saratxoko palmondoa

Zaloa Kintana eta Idoia Etxeguren (Saratxo Bizirik 2.0)

Jakin badakizuenez azken aldian modan dago Saratxoko herriaren hitzak margoz ezabatzea. Horrekin gustura gelditu ez eta Arabako Foru Aldundia, bertako zuhaitz bat kentzera etorri da, palmondo bat hain zuzen ere, bere gailentasuna azaldu nahian edo. Inori ezer esan gabe lorezaintzako enpresa pribatu bat jabetza pribatura zuzenduko duten palmondo bat atera dute Arabako Foru Aldundiaren baimenarekin. Ezin dugu palmondoa makro-proiektu burugabe honetarako erabili nahi duten desjabetutako herritar baten lur-eremu batean kokatuta dagoela ahaztu. Ez dakigu nori bideratuko dioten palmondoa, ezta zein mugimendu estrategiko egin behar izan duten hori lortzeko ere, baina bai Foru Aldundiaren babesa dutela. Aski da, palmondoak ez du berea ez den jabe baten esku geratu behar. Palmondo hau ez da edozein zuhaitz, 30 urte baino gehiago izanik balio biologiko handia du, eta familia zein herritarrontzat balio sentimental handiagoa. Beraz lehenengo ez al genieke jabeei aukera eman behar? Eta, haiek nahi izango ez balute, Saratxoko herriko jendeari! Palmondoa Saratxokoa izanik Saratxon gelditzea litzateke bidezkoena. Hori dela eta, Saratxoko batzordeak Foru Aldundiari horixe eskatu dio.

Saratxoarroi eman diguten mina ez al zaie nahikoa iruditzen? Gurea dena ere behartuta kendu ostean, bertan dauzkagun oroitzapenak eta gure bizitza osatzen duten gauzak ere kendu behar al dizkigute? Bizitzan bildutako objektuei lotutako sentimendu eta oroitzapenak ezin dira ordaindu. Betiko lez, Arabako Foru Aldundiaren bideek eta moduek haien buru eta teknikoen izaera islatzen dute. Gure nahia sinplea da: errepidearen baldintzak hobetuko dituen proiektu jasangarri bat burutzea. Amurrioko udaletxean PPk izan ezik talde guztiek babestutako mozioak berdina dio, garatu beharreko proiektuak ahalik eta oniritzi zabalena eta inpaktu ekonomiko, ekologiko zein sozial txikiena izan behar duela. Bide horretan aurrerapausoak eman beharrean gaude, baina gure herrian ezinegona da nagusi, Aldundiaren baitan teknikarien iritziek politikoenak baino pisu handiagoa duela ematen du eta. Arabako Batzar Nagusietan ideia bera plazaratzen zuen mozioa onartu zen eta momentuz ez dugu irtenbidea proposatzen duen proiektuaz ezer entzun. Azken aldian, alderdi politikoek adostutako irtenbidea aldarrikatzen dute... Hauteskunde garaiaren eragina izango ote? Zinez espero dugu epe hau igarota aireak ez ditzala esandakoak eraman.

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:
publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Web-gunea:
www.aiaraldea.eus
Helbidea:
Nerbio Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

G! Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // infor@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Aiaraldea

UDAL HAUTESKUNDEAK HAUTAGAIAK

IDOIA AGINAKO
Urduñako EH Bildu

"4 urtetan egoera ekonomikoari buelta eman dio EH Bilduk"

+info: Idoia Aginakori egindako elkarrizketa

JOSE ANGEL EGIA
Okondoko EAJ



"Zintzotasuna eta zentzutasuna eskaintzen dizkiot herriari"

+info: Juan Angel Egia alkategaiari eginiko elkarrizketa

ITZIAR DUOANDIKOETXEA
Arrankudiaga-Zolloko EH Bildu

"Egindako lehenengo gauza udala herritarrei hurbiltzea izan da"

+info: Itziar Duoandiko-etxeari elkarrizketa

Iaz bezala plazak bete nahi ditu Gure Esku Dago ekimenak. aiaraldea.eus

Gure Esku Dago ekimenak erabakitzeko eskubidea josiko du oihalen bitartez

ERREDAKZIOA I Aitor Martinez Ibarrola

Apirilaren 25ean Gure Esku Dago plataformak hainbat ekimen[1] egingo ditu eskualdean. Erabakitze eskubidea ardatz, helburua ekainaren 21ean Euskal Herriko hiriburu desberdinetan egingo den nazio ekimenerako lanketa egitea izango da. Lehenengo helmugari[2] begira, oihal[3] zatiak banatu dituzte, 20 pertsonako zati bat, ondoren herrietako ekimenetan batuko direnak. Oihaletan nahi adina marraztu ahal izango da. Partaideek euro bana ordaindu beharko dute. Ekaineko deialdian Euskal Herriko oihal guztiak batuko dira.

Datorren larunbatean, ordea, jostunen dinamikari helduko diote. Orozkon 11:30ean talde argazkia egingo dute. 12:00etan oihalak josiko dituzte plazan, hautestontziak osatu eta dantza emanaldiaz zein herri bazkariaz gozatzeko. Laudion, Herriko plazan musika jarriko dute 11:00etan, 11:30ean txalaparta eta aurkezpena egongo da, eta gero oihalak josiko dira. 12:00etan, berriz, herri kirolak izango dira, 12:30ean dantza taldeen emanaldia eta 13:00etan ttunturro eta trikitixa doinuekin kalejira.

Artziniegako frontoian 12:00etan musika jarriko dute, erabakia ehuntzen[4] bideo emanaldia eta oihalak bete zein josteko aukera eskaintzeko. Okondon antzeko egitaraua dute; plazan musika eta oihalak bete eta jostea. Amurrion Herriko plaza jai gune bihurtuko dute: musika, bertsolariak, txistulariak, dantzak, margolari taldea eta josteko tailerra egongo delarik. Arrankudiaga-Zollon triki poteoa egingo dute, Sagardotegi Eguna aprobetxatuz.

Hiztegi lagungarria

Ekimen[1], iniziatiba/ helmuga[2], helburu/ oihal[3], ehun, tela/ ehundu[4], eratu.

Gasteizera joateko asteburuko autobus zerbitzua bikoiztu dute

ERREDAKZIOA I

Arabako Foru Aldundiak 10 urterako La Union garraio enpresari esleitu dio Gasteizera joateko Aiarako autobus zerbitzua, 8.991.890 euroren truke. Gasteiz-Amurrio-Laudio zerbitzuak orduroko maiztasuna izango du eta momentu jendetsuenetan ordu erdikoa. Gainera, Unibertsitatetik pasatuko da goizetan eta eguerditan. Bestalde, Artziniega-Gasteiz ibilbidea goizeko lehen ordutan eskainiko dute. Horretaz gain, asteburutan Gasteizera joateko autobus gehiago jarriko dituzte; lehen 3 ziren eta orain 7 izango dira. Artziniegako asteburuetako zerbitzua ere bikoiztu dute; eta Okondon eta Luiaondon geldiuneak eskainiko dituzte.

Amurrio

Udalak Sarturen bitartez langabeak kontratatzeko lan poltsa ireki du

ERREDAKZIOA I

Amurrioko Udalak Sartu-Álava elkartearekin hitzarmena sinatu du. Horri esker udalerriko 12 langabeturi zuzenduriko 6 hilabeteko formakuntza-lan programa abiatu dute, "Erabilera Publikoko Herri eta Natur Esparruen Mantenua" izenburupean.

Izena emateko beharrezkoa da Lanbidera jotzea, Amurrion duela 4 urtetik gutxienez erroldatuta egotea, Lanbiden lan bila gutxienez 18 hilabete ematea, azken bi urteetan gutxienez 18 hilabetez langabezian egotea eta urtebeteko esperientzia izatea eraikuntza, industria, mantenu edota ingurugiro sektoreetako lanetan. Apirilaren 20an bukatuko da izena emateko epea.

_herriz herri

Orozko

Zubiaur plazan konponketak egingo dituzte soberakinekin. Aiaraldea.eus

Udalak 564.554 euro aurreztu ditu 2014an

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Gobernu taldeak adierazi du guztira 763.604,34 euroko soberakinak lortu dituztela iazko aurrekontuen luzapenagatik. Hala, 564.554,36 euro aurreztu ditu 2014an Orozkoko Udalak. Luzapenak ekidin ditu inbertsioak egiteko aukerak. Bestalde, baso ekoizpenak diru-sarrera ugari sortu ditu; 155.000 euro hain zuzen. Gainera, 2014an kreditu aldaketa egin zuten -302.000 eurokoa- eta erdia soilik gastatu dute.

Azken udalbatzan hartutako erabakiaren ondorioz 138.500 euro bideratuko dituzte inbertsioetara: Santa Maria Kaleko obretarako 50.000€, Zubiaur Plazarako 25.000€, Donibane Aretoko zinema tresnen digitalizaziorako 43.000€, Epaltzeko biderako 5.500€ eta Arbaitzarako 15.000€.

Enplegua bultzatzeko bi ekimen jarri ditu udalak martxan

ERREDAKZIOA I Lukas Pasandin Sanchez

Orozkok, Bizkaiko Aldundiarekin eta Nerbioigoienako beste udal batzuekin batera "Gaztedi Nerbioi Ibaizabal 2015" hitzarmena sinatu du 18 eta 29 urte arteko gazteen enpleguari buruzko politikak garatu eta bultzatzeko. Kanpaina maiatzean hasiko da eta 2016an aztertuko dute jarraitzea komenigarria den ala ez. Hiru ardatz nagusi izango ditu: langabezian dauden gazteentzako 20 beka kudeatzea, laneratzeko jarraipen-plan pertsonalizatua eskaintzea eta eskualdeko enpresetan praktikak egiteko aukera. Ekintzailetza sustatzeko programaren baitan, berriz, autoenplegurako proiektu pertsonalak sustatu ditzaten laguntza eta aholkuak emango dituzte. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak aurkeztu berri dituen kontrataziorako laguntzei esker, Orozkoko Udalak bi pertsona kontratatuko ditu aurten ere. Lau hilabeterako kontratuak izango dira herriko altzariak egokitu eta margotzeko. Izena emateko interesdunek Lanbidera jo beharko dute.

Aiara

Bilduk aurkeztutako aurrekontua onartu ondoren dimititu dute EAJko bi zinegotzik

ERREDAKZIOA I

Pasa den asteazkenean onartu zituen Aiarako Udalak 2015eko aurrekontuak. Bilduk ez ezik EAJk ere babestu zuen proposamena. Aldeko boza eman eta gero EAJko Garbiñe Alaña eta Ander Bergara zinegotziek zinegotzi izateari uzteko dimisioa aurkeztu zuten, alderdiaren injerentziak salatuz.

PP abstenitu egin zen eta Aiara Batuz-ek kontrako boza eman zuen, alderdi independenteak aurkeztutako 9 zuzenketak ez baitziren onartu.

2.567.356 euroko

Aurten Aiarako Udalak 2.567.356 euroko aurrekontua izango du eta 630.000 euroko soberakinak ere badauzka. Azken horiek Luiaondon egingo den osasun zentroan birgaitze-lanak gauzatzeko erabiliko dira.

Inbertsioen artean Arespalditza eta Luiaondoko kirol azpiegituretan eta Etxaurren Ikastolako komunetan egingo direnak udalak azpimarratu ditu udalak.

Piriniotako Behien Lehiaketa aurtengo San Isidro Azokan

Maiatzaren 15ean San Isidro azoka egingo da Arespalditzan. Aurtengo edizioan tokiko ekoizleen azoka mantenduko dute, baina ganadu erakusketaren ordez Piriniotako Behi Arrazaren Lehiaketa egingo da lehen aldiz. Araban egiten den mota horretako lehiaketa bakarra izango da. Ekimenaren bitartez Aiarako azoka erreferentziazkoa bihurtzea dute helburu.

Arespalditzako plazan izango dira ospakizun gehienak. Aiaraldea.eus

San prudentzio jaiak ate joka

ERREDAKZIOA I

Herrietako festen aroa heltzear dago, Aiaran, San Prudentzio ez ezik, San Markos jaiak ere ospatuko dituzte berehala.

San Prudentzio da Aiarako jairik garrantzitsuena. Datorren larunbatean hasiko dira festak Arespalditzan, 09:30ean abiatuko den Prontxi III. Mendi Ibilaldiarekin.

Ofizialki, ordea, 12:30ean hasiko dira. Egun osoko egitaraua prestatu dute, eta horretarako, umeentzako jokoak, gastronomia eta kirola uztartuko[1] dituzte. Txirrindularitza lasterketa ere egongo da 17:00etan, kadeteentzako Jesus Isasiren Oroimenezko XXXV. Txirrindulari Sari Nagusia antolatu baitute. Kontzertuak ere prestatu dituzte, Atxurre, Izate Faltsua eta Tximeleta taldeak egongo dira 22:00etatik aurrera.

Igandean umeak eta adinekoak izango dira protagonistak. 11:00etatik aurrera haurrek tailer ezberdinak eta jolas parkea izango dituzte eskura. Bestalde, Nagusien XV. Eguna ospatzeko bazkaria eta dantzaldia egongo da Iñaki Otegirekin.

Astelehenean 3x3 Hockey Txapelketa egingo dute 10:00etan Arespalditzan eta gaueko 22:00etan Gwa Ya taldeak joko du. Asteartean, berriz, eskualdeko produktuen azoka egingo dute Arespalditzan 11:00etatik aurrera. 12:00etan San Prudentzioren ohorezko meza izango da eta horren ostean Itzalde Abesbatzaren kontzertua. 13:00etan Umeen danborradaren txanda helduko da eta 16:30ean haurrentzako ikuskizuna. 18:30ean Erromeria egingo dute eta 20:30ean odolostea jateko aukera egongo da euro baten truke.

Gainera, hainbat egunetan bolo lehiaketa izango da Luiaondon eta Kexaan.

San Markos jaiak Menoion

Bestalde, Menoion San Markos jaiak ospatuko dituzte apirilaren 24an eta 25ean. Ostiralean 22:00etan izango da txupinazoa eta hurrengo egunean 11:50ean Adar-deia egingo dute, 12:00etan Meza. 12:30ean, aldiz, "Menoio abizena munduan" erakusketa[3] inauguratuko dute, 13:15ean luntxa egongo da eta 14:00etan Arkumearen zozketa. 17:30ean umeentzako jokoak hasiko dira.

Hiztegi lagungarria

Uztartu[1], batu/ adineko[2], adin nagusiko pertsona / erakusketa[3] esposizio

_publizitatea

AIARAKO JAIAK 2015

· Apirilak 25, larunbata ·

9:30 "Prontxi Ibilaldia" III. Mendi Martxa
11:30-13:00 Bolo jaurtiketa Luiaondon
12:30 Jaien hasiera
- ·Anuntxi Arana, 2015ko pregoilariaren agurra
- ·Adar deia
- ·Portada lehiaketako irabazleari saria ematea
- ·Beotegi herria arduratuko da txupinazo ofizialaz. Jarraian beste 23 herriek botako dute suiziri bana
- ·Prontxiri ongietorria, Itzalde abesbatza eta Eskutxiko ahotsak lagunduta
- ·Jai parekideen aldeko mezua

13:30 Buruhandiak
15:00 Herri bazkaria, norberak bere bazkaria eramango du eta Udalak ardoa eta ura eskeiniko du
16:30 Jesus Isasiren Oroimenezko XXXV. Txirrindulari Sari nagusia (Kadeteak)
17:30 Altxorraren bila
18:00-20:00 Bolo jaurtiketa Luiaondon
18:00-20:00 Bolo jaurtiketa Kexaan
20:00 Txorizo jan herrikoia (0.50 €)
22:00 Kontzertua, Izate Faltsuak taldea
23:30 Kontzertua, Atxurre taldea
1:00 Berbena, Tximeleta taldea

· Apirilak 26, igandea ·

11:00-13:00 Bolo jaurtiketa Kexaan
11:00-14:00 Umeentzako parkea
12:00 Gure nagusien omenezko meza
12:30 Eskutxiko ahotsak abesbatzaren kontzertua
14:30 Nagusien XXV. Eguna ospatzeko bazkaria. Eta dantzaldia Iñaki Otegirekin
17:00 Pilota jaialdia Luiaondoko frontoian Pilota eskolaren erakustaldia eta senior partida.
17:30 Umeentzako tailerrak
17:00-20:00 Umeentzako parkea
19:00-19:30 Bolo jaurtiketa, emakumezkoen kategorian Luiaondon

· Apirilak 27, astelehena ·

10:00-13:00 IV. San Prudentzio 3x3 hockey txapelketa
22:00 Kontzertua, Gwa Ya taldea

· Apirilak 28, asteartea · San Prudentzio

11:00 Eskualdeko produktuen merkatua
12:00 San Prudentzioren ohorezko meza
12:30 Itzalde Abesbatzaren kontzertua
13:00 Umeen danborrada
17:30 Umeentzako ikuskizuna
18:30 Erromeria, Patxi eta Konpainia
20:30 Odoloste jan herrikoia (1 €)
Eta Prontxi agurtu...

AUTOBUSEN ORDUTEGIA

APIRILAK 25, LARUNBATA
SÁBADO 25 DE ABRIL

GAUEKO AUTOBUSAK · AUTOBUSES NOCTURNOS

Artziniega	Lanteno	Menagarai	Ibaguen	Arespalditza
20:15	20:25	20:30	20:40	20:45

Laudio	Luiaondo	Amurrio	Murga	Arespalditza
21:05	21:15	21:25	21:35	21:45

Arespalditza	Ibaguen	Menagarai	Lanteno	Artziniega
4:00	4:10	4:20	4:30	4:40

Arespalditza	Murga	Amurrio	Luiaondo	Laudio
5:00	5:10	5:20	5:30	5:40

APIRILAK 26, IGANDEA
SÁBADO 26 DE ABRIL

AUTOBUS ZERBITZUA BAZKALORDUREN AURRETIK EGINGO DIREN EKITALDIETARAKO
SERVICIO DE AUTOBÚS DE IDA PARA ASISTIR A LOS ACTOS PREVIOS A LA COMIDA

Luiaondo	Murga	Zuhatza	Menagarai	Lanteno	Arespalditza
11:00	11:10	11:20	11:30	11:35	11:50

Arespalditza	Jatetxea
14:15	14:25

BAZKARIAREN ONDOREN, AUTOBUSAK JOATEAN EGINIKO GELDIALDI BERDINAK EGINGO DITU
AL FINALIZAR LA COMIDA EL AUTOBÚS REALIZARÁ PARADAS EN LAS MISMAS LOCALIDADES QUE EN EL VIAJE DE IDA.

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Vital

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

kutxabank

_herriz herri

Urduña

Alondegia Gizarte Etxe gisa irekiko dute apiriletik aurrera

Alondegiaren erabilera areagotu nahi dute. /aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Alondegia Gizarte Etxea izango da apirilaren bigarren hamabostalditik aurrera. Urte hasieran mugitu zuten Foru Plazatik Alondegira Turismo bulegoa. Apirilean, berriz, ludoteka eta Gaztegune zerbitzua gehituko zaizkio eraikinari, Alondegia gizarte etxe bihurtuz. Horrez gain, herritarrek zein elkarteek erabiltzeko 3 gela jarriko dituzte eskura. Beheko solairuan ekitaldiak antolatzeko areto bat egongo da, proiektore eta soinu ekipo batekin lagundua. Solairuen[1] arteko gunean, berriz, entsegu lokalak mantenduko dituzte; orain arte bezala Liborio kolektiboak kudeatuko[2] dituenak. Lehenengo pisuan, ludoteka eta Gaztegunea jarriko dituzte martxan. Eta, bigarren solairuan ekintza puntualetarako (bilerak, ekitaldiak, erakusketak...) bi areto[3] egongo dira. Hirugarren solairuak sukaldea izaten jarraituko du, ikastaro eta ekintza ezberdinei espazioa emanez.

Alondegia gizarte etxe bihurtzeko martxoan zehar egin dituzte obrak. Izan ere, espazioaren banaketa eta azpiegitura hobetzeko hainbat aldaketa egin dituzte eraikinaren barruan. Horretarako, 2015eko aurrekontuetatik 20.000 euro bideratu dira.

Hiztegi lagungarria

Solairuen[1], pisuen / Gestionatu[2], kudeatu / Areto[3], sala

Laudio

Frackingaren aurkako herria izateko mozioa onartu du Laudioko udalbatzak

ERREDAKZIOA I Eider Elorza Laconcha

Fracking Ez Aiaraldea herri plataformak frackingaren kontrako mozioa aurkeztu du udalbatzan. Mozioak Bildu, EAJ, PSE-EE eta Omnia talde politikoen aldeko bozei esker egin du aurrera; PP soilik abstenitu baitzen.

Mozioak frackingik gabeko udalerri aldarrikatu du Laudio. Hala ere izendapen horrek babes legalik ematen ez duela gogoratu du Fracking Ez Aiaraldeak, udalek ez baitute gai horretan legerik egiteko eskumenik.

Harrobiko konponketak bukatu arte Guardianek aparkalekua utziko du

Harrobiko konponketek irauten duten bitartean, Guardian enpresak 63 aparkaleku utziko dizkie Bitorika 4-6 atarietako bizilagunei. Udalak akordioa sinatu du enpresarekin eta horri esker Guardianek bide zaharretan zuen jantoki ohiaren eremua herritarrentzako aparkalekuetara bideratuko du.

GOROBEL
Fisioterapia
BULARREKO KOLIKOAK
MASAILEZUR DISFUNTZIOA
ARNASKETA FISIOTERAPIA
JARRERA BERREZITZE GLOBALA
LOTAILU ETA MUSKULU LESIOAK
T. 945 71 28 31
M. 695 83 17 86
Gernika plaza, 8 baxua
URDUÑA (Bizkaia)

Artziniega

300.000 euro baino gehiago inbertsioetan

ERREDAKZIOA I

Artziniegako udalak 2015eko aurrekontuak onartu ditu; EAJren aldeko bozekin eta PP eta Bilduren abstentzioari esker. 2014an aurreikusitakoa baino %3.1 handiagoa da aurrekontua, 1.754.600,82 eurokoa , hain zuzen ere.

Gobernu Taldeak azpimarratu du inbertsioen atalean 103.284,62 euro daudela jasota eta bereziki nabarmentzekoak jo ditu Gernika hiribidea asfaltatzeko partida, kiroldegiko ur beroaren eta berogailuaren instalazioa aldatzea, eta alde zaharrera sartzeko sistemetan abisu-semaforoak instalatzea.

Bestalde, 2014 ekitaldia 832.506,63 euroko soberakinarekin itxi dutela jakinarazi dute. Soberakinaren zati bat udalerrian inbertituko dute, 300.000 euro udaletxetik eskolara doazen espaloiak egiteko erabiliko baitituzte.

Inbertsio gehiago

Lan gehiago ere aurreikusi dituzte: La Ventara eta Gordelizera ura eramateko obrak, termitak kontrolatzeko lanak, Garay plazako kulunkak hobetzea, udaletxeko biribilguneko eremua egokitzea, udal-igerilekuen arazketa-sistema aldatzea; Erretes Tuterako urtegirako bidea asfaltatzea, Artea Gure Ama ikastetxe publikoan hobekuntza-lanak egitea, udaletxeko bigarren solairua egokitzea, eta igogailua instalatzeko obrak amaitzea, besteak beste.

ARABAKO MERKATARITZA TXARTELAREN FIDELIZAZIO PROIEKTU BERRIA

BEREIZGARRI HAU BILATU!

Establezimenduetako batean erosten duzun bakoizean **% 2, % 5 edo % 10eko deskontua metatuko duzu**, hurrengo erosketan automatikoki aplikatuko zaizuna.

Egunez egun, gero eta gehiago dira ekimenean parte hartzen duten establezimenduak. Hortaz, komeni da noizean behin zerrenda gaurkotua kontsultatzea.

Federación: www.federacioncomercioalava.com
Apill: www.laudiocomercial.com
Apymca: www.apymca.com

* Ez da bateragarria Ogerleko proiektuarekin.
** Bezeroek 2015/12/31 arte erabil dezakete deskontua.

federación comercio alava

_jendartea

AMURRIOKO KUADRILLAK

Euskotarrak kuadrilla, mende erdi herriko jaietan eragiten

Urte berezia da aurtengoa Amurrioko kuadrillentzat: mendi erdi betetzen baita Trot-Art eta Euskotarrak taldeak sortu zirenetik, funtzionatzen jarraitzen duten zaharrenak, hain zuzen ere. Euskotarrak taldeak hilaren 18an ospatuko du 50.urteurrena. Amurrioko lehen kuadrilla mistoa izan zen Euskotarrak.

Kuadrillak Herriko Plazatik kalejiran abiatzen, 1967an. Argazkia: Dantza Lagunak koadrila

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Ez da kasualitatea aurtengo Urrezko Guk Saria Amurrioko Koadrilek jaso izana. Aurtengoa urte berezia da eurentzat, mende erdi betetzen baita bi kuadrilla zaharrenak sortu zirenetik: Euskotarrak eta Trot-Art.

Lehenengoak ekin dio jada bere urteurrena ospatzeari. Datorren apirilaren 18an kuadrillako gaur egungo kideak zein ohiak[1] biltzeko asmoa dute, Euskotarraken sorreran aritu ziren pertsonak omendu asmoz. Txotxe Plaza da horietako bat. Ondo gogoratzen ditu garai haiek. Hain ondo ezen kuadrillaren lehen urte horiek idatziz plazaratu[2] baititu, laster argitaratuko den liburu batean.

"1965. urtea zen; lagun talde bat bildu ginen mezak eta zezenak baino ez zituzten jai batzuei buelta emateko gogoarekin", oroitu du. Kuadrilla moduan, baina, urte bat beranduago agertu ziren lehenbizikoz. Helburu nagusi bat zeukaten buruan: nongoak ziren aldarrikatzea[3]. "Euskaldunak ginela adierazi nahi genuen", azaldu du Plazak. "Horretarako gure hizkuntza indartzeko zein gure dantza, musika instrumentuak... erabiltzeko ahalegina egin genuen".

Koadrilen loraldia

Garai hartan beste hiru kuadrilla zeuden herrian: Los Intocables, El follon eta Trot-Art. Lehena 1967. urtean disolbatu zen. El follon, berriz, duela hamabost urte. Bidean, ordea, talde berriak sortu dira: El Boli, Dantza Lagunak eta Herriarenak.

Euskaltasuna aldarrikatzeaz gain, bazegoen Euskotarrak berezi egiten zuen beste gauza bat: lehen talde mistoa izan zela. Ordura arte egondako koadriletan gizonezkoak baino ez zeuden.

Frankismoko azken urteak ziren, baina Plazak ziurtatu du ez zutela traba edo gatazka berezirik izan euren jarduerak[4] aurrera eramateko orduan: "Horren handia zen geneukan ilusioa ezen gainontzeko guztiak ez zuela garrantzi handirik".

Gaur egun 500 lagunek osatzen dute Euskotarrak, herriko kuadrillarik handiena da

Amurrioko historian egondako lehen talde mistoa izan zen Euskotarrak

Ilusio falta

Ilusioa da, Plazaren iritziz, galtzen joan dena. "Gaur egun jendeak ez du jaietan lehen bezala parte hartzen", azaldu du Euskotarrakeko kideak, "badago lan egiten duen jendea, baina jaietan parte hartzeko grina ez da lehen zegoena bezalakoa".

Plazak duen sentsazioa ez da kuadrillako kide beteranoenek soilik duten zerbait. Euskotarrakeko kide gaztea den Julen Berazak ere bat egiten du ilusioa galdu egin denaren baieztapenarekin: "Lehen zegoen kutsu aldarrikatzailea leunduz joan da da".

500 bazkide

Hala ere, Euskotarrak taldeak Amurrioko kuadrillarik sendoenetako bat izaten jarraitzen duela ziurtatu du Berazak. Taldeak dituen bazkide kopurua jarri du horren frogatzat: 500 inguru baitira guztira. "Badaude atzerrian bizi diren kideak, jaietarako soilik datozenak", aipatu du gazteak. Adin aldetik ere oso kuadrilla anitza da: "16-29 urte bitarteko pertsonak daude, eta umeak ere animatzen dira parte hartzera, karroza margotuaz, adibidez".

"Lagun talde bat bezala jarraitu izan bagenu desagertuak egongo ginateke honez gero", ziurtatu du Plazak. Baina, hori egin baino, kuadrilla zabaltzeko hautua hartu zuten. Bait alortu ere, taldea sendo mantendu baita kide beteranoaren ustetan. Indar hori guztia ikusteko aukera egongo da apirilaren 18ko zitan. Egingo den bazkarirako 400 kidek eman dute jada izena. Bertaratzerik ez dutenek, baina, izango dute urteurrena ospatzeko bigarren aukera bat, abuztuaren 16an, hain zuzen ere. Jaien baitako egun horretan zerbait egitea dute buruan Euskotarrakeko kideek, baina oraindik ez dute zehaztu[5] zer izango den.

Hiztegi lagungarria

Kide ohiak[1], kide zaharrak, kide izandakoak / Plazaratu[2], jarri, argitara eman / Aldarrikatzea[3], errebindikatzea / Jarduerak[4], ekintzak / Zehaztu[5], konkretatu

Maider
Iglesias
ARANZADI ELKARTEA

_Hankamotz

Sugeak

Zein da beldur gehien ematen dizun animalia taldea? Erantzunean "sugeak" etorriko zaizkio zuetako askori, baina zergatik? Tamalez galdera honentzako ez da erantzunik izaten. Sugeek gainontzeko animaliek jasaten dituzten mehatxuez gain, modu irrealean mehatxatuta sentitzen diren pertsonen partetik jazarpen zuzena pairatzen dute. Beldur horren jatorria ezjakintasunean dago, eta honi aurre egiteko, mito zein uste okerrak gezurtatzeko, animali hauen benetako errealitatea erakustea izaten da biderik egokiena, soilik honela lortzen baita jendearen jarrera aldaketa, animalia hauek gainontzekoen gisara errespetatuz tratatuak izan daitezen.

Azken finean hartz panda hiltzea bezain larria da suge bat hiltzea, eraso ekologiko konparagarria da. Adibidez, jakin bazenekien Aiaraldean topa daitezkeen 6 espezieetatik bakarra, sugegorri kantauriarra, dela pozoitsua? Baina, orduan, pozoitsua baldin bada, horren beldur izatea normala al da? Argi izan behar dugu sugegorri espezie honen kasuan (eta Penintsulako beste bien kasuan ere) pozoia ahula dela. Penintsulan 130 bat hozkada ematen dira urtero, eta horietatik %1 soilik suertatzen da hilgarria, eta beti erreakzio alergikoa eragiten diolako erasoa jasan duenari. Pozoitsua, beraz, ez da hilgarriaren sinonimo.

Horrelako bitxikeri eta datuak ezagutzea ezinbestekoa da narrasti talde honekiko errespetua irakasteko eta ingurune osora zabaldu litekeen jarrera lortzeko.

Non dago giltza?

4.215 ETXE HUTS AIARALDEAN

Aiaraldean dauden bost etxebizitzetatik bat dago hutsik, EUSTATek 2011an argitaratutako erroldaren arabera. Argazkia: Jon Catalan

Aiaraldeko etxebizitzen %20,4 hutsik dago, EUSTATek 2011an argitaratutako erroldaren arabera. 21.114 etxebizitza daude guztira eskualdean, bi biztanleko bana. Alokairuan baina, %7,65 baino ez dago, Europar Batasuneko ehunekorik txikienetakoa. Hileko errentaren batez bestekoa berriz, gutxiengo soldataren gainetik dago.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

2011koa da EAE mailan egin den azken etxebizitza errolda. Bost urtean behin egiten da eta udalerri bakoitzeko datuak azaltzen dira bertan. Eskualdeko herrien zenbakiak batuta ateratzen da emaitza: 4.215. Hori da Aiaraldean hutsik dagoen etxebizitza kopurua.

Etxebizitza hutsak bi multzotan banatzen ditu EUSTATek. Alde batetik, modu iraunkor batean hutsik dauden eta erortzeko zorian ez dauden etxebizitzak daude: eskualdean 3.106. Horiei bigarren etxebizitza deritzenak batzen zaizkie, urtean sei hilabete baino gutxiagoz erabiltzen direnak: 1.109.

16.495 etxebizitza nagusi (modu iraunkor batean erabiltzen direnak) daudela ikusita kalkulatu daiteke ehunekoa: Aiaraldeko etxebizitzen %20.4 dago hutsik.

Orozko da Hego Euskal Herri mailan proportzioan etxe huts gehien dituen 2000 biztanle baino gehiagoko udalerria, INEk 2011an ateratako zerrenda baten arabera

Etxe huts gehien, Orozkon

Eskualdeko herrien artean, baina, hainbat ezberdintasun topatu daitezke. Populatuena izanik, Laudio da etxebizitza huts gehien dituena: 1.239, guztiaren %14,45.

Baina kasurik esanguratsuena[1] Orozkokoa da, Hego Euskal Herri mailan proportzioan etxe huts gehien dituen 2000 biztanle baino gehiagoko herria baita. Hori dio Espainiako Estatistika Institutuak (INE) 2011n argitaratutako estatu mailako ranking batean, Orozko 30.postuan azaltzen baita. EUSTATen arabera, herriko etxebizitzen %34,4 zegoen hutsik urte horretan.

Orozkoko alkatea den Josu Sanpedrok bat egin du herrian etxe huts asko daudenaren baieztapenarekin. "Herrian orokortu den zerbait da", azaldu du, eta gaineratu du etxeetako batzuk egoera txarrean daudela eta erortzen ari direla: "Ondarea galtzen ari gara hor".

Alokairu eskaintza eskasa

Datuak aztertuta arazoa ez da etxebizitza kopurua. 2001etik 2013ra bitartean 4.212 etxebizitza eraiki ziren eskualdean, baina 2.481 pertsona gehiago bakarrik kontabilizatu ziren. Gauzak hala, gaur egun bi pertsonako etxebizitza bat dago eskualdean.

Hala ere, etxebizitzaren beharrak arazo bat izaten jarraitzen du eskualdean. Zenbakiak dira horren adierazle: Eusko Jaurlaritzak etxebizitza sustatzeko Etxebide programan Aiaraldean 2008tik 2013ra egindako etxebizitza babestuen eskarien bosten bat baino ez zen adjudikatu.

Alokairuari begira ere, oso eskaintza gutxi dago Aiaraldean. Etxebizitza guztien %7,65a bakarrik dago alokairuan, gainontzekoa jabegoan edo beste formaren batean emana dago. Aiaraldea herrialde bat izango balitz alokairuan etxebizitza gutxien dituzten Europar Batasuneko estatuen rankingean zazpigarren postua izango luke, Bulgariaren atzetik. Alemania eta Suitza dira zerrenda horretan beheren dauden herrialdeak, alokairuan etxebizitza guztien %46,8 eta %55,7 baitituzte, hurrenez hurren[2].

Prezio altuak

"Badaude euren etxebizitza alokairuan jarri nahi ez duten pertsonak", azaldu du Etxaurren higiezinen agentziako[3] kide den Carlos Egiak. Horren arrazoia inkilinoren batekin izandako esperientzia txarra izan daitekeela iradoki du, baina azpimarratu du berak ez duela inoiz halako esperientziarik ezagutu: "Badaude inkilinoen nominak eskatzen dituzten jabeak, errenta ordaindu dezaketela ziurtatzeko". Errenta zenbatekoa den da alokairu bat bilatzen dutenek kontuan gehien hartzen duten faktorea, Iruñalan agentziako Oscar Gomezen hitzetan. Egiak gaineratu du prezioak asko jaitsi direla azken urteetan, "hileko 450 euroko errenta duten pisuak topatu daitezke". Hala ere, bataz besteko alokairu librea Araba mailan 729 eurotan kokatzen da, EUSTATen arabera, gutxienezko soldata 645,3 eurotan kokatzen den bitartean. Horrek jende askok alokairu bat ordaintzeko adina diru ez izatea dakar.

Hiztegia lagungarria

Esanguratsuena[1], atentzio gehien ematen duena / Hurrenez hurren[2], apur bat / Higiezinen agentzia[3], inmobiliaria

_etxebizitzak udalerriz udalerri (2011)

UDALERRIA	Nagusiak	Etxebizitza hutsak		
		Bigarren etxebizitza	Guztiz hutsak	Hutsak guztira
Laudio	7336	177	1062	% 14,45
Amurrio	3862	140	658	% 17,12
Aiara	1051	198	277	% 31,13
Okondo	459	32	60	% 16,7
Urduña	1705	200	439	% 27,26
Orozko	965	104	401	% 34,35
Arrankudiaga-Zollo	352	14	78	% 20,72
Artziniega	732	234	121	% 32,66
Arakaldo	42	10	10	% 32,26
AIARALDEA	**16504**	**1109**	**3106**	**% 20,34**

AIARALDEA DATUTAN

%20

Aiaraldeko bost etxebizitzetatik bat hutsik dago (4215 etxe). Hutsik dauden etxebizitzen baitan bigarren etxebizitzak (%5.4) eta etxebizitza jendegabetuak (%15) daude Iturria: EUSTAT

Etxe 1

dago Aiaraldean bi biztanleko

4.212

etxebizitza eraiki dira 2001etik 2013ra Aiaraldean. Populazioa aztertuta baina, 2481 biztanleko igoera baino ez da eman Iturria: EUSTAT

45

urtekoa da EAEn alokairuan bizi diren pertsonen bataz-besteko adina
Iturria: EUSTAT

_alokairua ehunekotan

Aiaraldea herrialde bat balitz, alokairuan etxebizitza gutxien dituztenen Europar Batasuneko rankingean zazpigarren postuan legoke (Espainiak bederatzigarrena dauka).
Iturria: EUSTAT

Udaletatik eragiteko tresnak

Zabaldua dago udalek arazo orokorrei aurre egiteko gaitasun gutxi daukatenaren ustea. Baina badituzte etxebizitza hutsen problematikari heltzeko moduak. Laudio, Amurrio eta Artziniega eta beste udalerri batzuk Alokabiderekin (Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen enpresa publikoa) sinatutako hitzarmenak dira horren adibide. "Etxebizitza hutsen mugikortasuna" sustatzea da akordio horien xedea, Bizigune eta ASAP izeneko programen bidez.

Baina, hortaz gain, udalek badituzte tresna propioak etxebizitza hutsak alokairura igarotzea bultzatzeko. HGZ da horietako bat (Higiezinen Gaineko Zerga). Zarautzen, adibidez, etxebizitza bat hutsik mantentzen duen jabe bat 1.000 euro ordaintzera iritsi daiteke, zerga horren errekargu moduan. Gipuzkoako Foru Aldundiak %150erainoko errekarguak baimendu zituenez geroztik egiten da hori Zarautzen.

Isunak banketxeei

Beste adibide bat Katalunian topatu daiteke. Hipotekagatik kaltetutakoen plataformak (PAH) mozioak aurkeztu ditu zenbait udalerritan, herrian dauden etxebizitza hutsen jabe diren bankuei isunak[1] ezartzea eskatuaz. Kataluniako Parlamentean onartutako Etxebizitzaren Legeak hori ahalbidetzen du. Isunak 3.000-900.000 euro bitartekoak izan daitezke.

Baina adibiderik ezagunena Andaluziako Marinaleda udalerrikoa da. Etxebizitza bat nahi duen herritarrari udalaren lur bat ematen zaio bertan, eta udal-arkitektoaren laguntzaz ekiten dio etxebizitza eraikitzeari. Herritarrak 15 euro ordaintzen ditu hilean, erabilitako materialak ordaintzeko hipoteka moduan.

Hiztegi lagungarria

Isunak[1], multak / Eskumena[2], konpetentzia, aukera

Etxebizitza legeak eta muga konstituzionalak

Eusko Jaurlaritzak hainbat tresna ditu etxebizitza politikari begira. Alokabide da horietako bat. Sozietate publiko bat da, alokairu babestuaz arduratzen dena. Jabeei euren etxebizitza hutsen alokairua kudeatzea eskaintzen die, ondoren Etxebide sozietate publikoaren bidez egiten diren alokairu eskaerak asetzeko[1]. Baina programa horiek ez dira jendartearen etxebizitza beharrak asetzera iristen. Aiaraldean 2008tik 2013ra Etxebiden egin ziren bost eskaretatik bat baino ez zen bete. Hortaz gain, errentamendu kontratuek hiru urteko iraupena dute, baina kontratua amaierara iritsi arte ez da zehazten luzatu egingo den, Alokabideren araudian[2] azaltzen denaren arabera. Hala, egun batetik bestera kalean topatu daiteke errentaria.

Etxebizitzaren EAEko lege bati begira dago orain Jaurlaritza. PSE-EEk aurkeztu du oinarrizko testua, eta EH Bilduk eta UPDk babestuta atera da aurrera. Oraindik eztabaidatu eta garatu beharreko lege bat den arren, honakoak barnebiltzen ditu proposamenak: etxebizitza hutsei kanon bat jartzea, kasu batzuetan etxe hutsak alokatzera derrigortzea eta desjabetzeko arriskuan dauden familien etxeen jabe diren bankuei etxebizitza hiru urtez konfiskatzea.

Laugarren saiakera

EAEn halako lege bat onartzeko egingo den laugarren saiakera izango da oraingoa. Baina ez litzateke autonomi erkidegoan martxan jartzen den lehen legea izango: Katalunian, Nafarroan edota Andaluzian ere onartu dira antzekoak. Andaluzia zein Nafarroako legeak, baina, bertan behera utzi ditu Espainiako Auzitegi konstituzionalak.

Hiztegi lagungarria

Asetu[1], bete / Araudia[2], arau multzoa

Europako beste herrialdeetako errezetak

Oinarrizko ezberdintasun handi bat dago hemengo eta Europar Batasuneko herrialde askotako etxebizitza politiken artean. Hori dio ekonomia abokatua eta etxebizitzaren gaineko politika publikoetan aditua den Javier Buron Cuadradok. Espainiar estatuan etxebizitzaren jabeek euren jabegoarekin nahi dutena egin dezaketenaren sinesmena[1] oso hedatua dagoela uste du ekonomialariak.

Kontrakoa gertatzen da Europako herrialde askotan, zeintzuetan estatuak legez aukera duen etxebizitza hutsen problematikan esku hartzeko. Herbehereen kasua aipatu du Buronek. Bertan okupazioa tradizionalki legaltzat eman da okupatutako etxebizitza urte bat baino gehiago hutsik daraman kasuetan. "Etxebizitza jabeari berriz hutsik egongo ez dela frogatuz gero itzultzen zaio soilik", zehaztu du adituak.

Danimarkan, berriz, zenbait udalerrik isunak jartzen dizkiete euren etxebizitzak sei aste baino gehiago hutsik dituzten jabeei. Ingalaterran udalek etxebizitzak alokatu edo saltzera derrigortu dezakete jabea, baldin eta etxeak sei hilabete baino gehiago badaramatza arrazoirik gabe hutsik. Alemanian jabeak etxebizitza berritzera derrigortu ahal ditu estatuak. Suedian, aldiz, hutsik dauden eraikinak behera botatzeko hautua hartu dezakete, muturreko neurri gisa[2].

Kopiatu beharrik ez

Dena den, Buronek nabarmendu du ez dela herrialde horietako politikak "idealizatzea" komeni. "Ez dugu ahaztu behar Europar Batasunean ere pribatizazio politiken haizeak daudela orain. Baina aipatutako adibide horiek kontuan ez hartzea ulergaitza izango litzateke".

Hiztegi lagungarria

Sinesmena[1], ustea / Gisa[2], moduan

Alternatibak herri ekimenetatik

Instituzioek egiten dutenaren zain egon gabe, pausoak ematen joatea. Hori da etxebizitza eskubidearen aldeko zenbait herri mugimenduk komunean dutena. Sevillan topatu daiteke horren adibide esanguratsu bat. Apirilaren 6an urte bat bete zen La Utopia izeneko eraikina poliziek deslojatua izan zenetik. Errekurtso gutxiko 36 familia bizi ziren bertan, 2012an eraikina okupatzea erabaki zutenetik.

Etxebizitza okupatuak ere egon badaude Aiaraldean, eta kasu batzuetan jabearekin akordio batera iritsi dira etxebizitza eraberritzearen truke bertan bizitzen uzteko. Eskubide sozialen aldeko Elkartzen mugimenduak eginiko "Etxebizitza gida" ere aipagarria da. Herrietan Alokairu Solidarioen Batzarrak antolatzea proposatzen da gida horretan, etxebizitzen jabeen eta alokairu bat bilatzen dabiltzanen arteko harremana garatzeko. Gazteizko Judimendi auzoan abian[2] jarritako "Judimendi bizi" proiektua jartzen du gidak adibidetzat.

Baina badaude etxebizitza eskubidea aldarrikatzeari begira egin diren beste hainbat ekimen ere: Iruñeko Txantrea auzoko emantzipazio bulegoa, Gasteizko Errekaleor auzoko etxe hutsen berregituraketa, Nafarroako Lakabe herri okupatua, gazteen eta adinekoen arteko elkarbizitza (adinekoek gazteei eurekin bizitzen uztea konpainia egitearen truke), etxebizitza kooperatibak (bazkide talde bat osatzea eraikin bloke oso bat erosteko), Bilboko Okupazio Bulegoa... Ideia asko, helburu bakarrari begira: etxe hutsen ateetako giltzak topatzea.

Hiztegi lagungarria

Esanguratsu[1], deigarri, aipagarri / Abian[2], martxan

_kultura

DANTZA

“Raquel & Nuria” dantza akademia, bere mailarik gorenenean

Estatuko Anaprode dantza lehiaketaren finalerako sailkatu dira Laudioko Raquel & Nuria dantza eskolako hainbat ikasle. 18 urteko ibilbidea egin ostean, bere mailarik gorenenean dago akademia.

ERREDAKZIOA I | Txabi Alvarado Bañares

18 urte igaro dira Nuria Lopez Alvarezek Laudion lokal txiki bat egokitu[1] eta dantza akademia bat ireki zuenetik. Handik urte gutxira bere ahizpa Raquel batu zen proiektura. “Hamar ikasle ingururekin hasi ginen”, oroitu du Raquel Lopez Alvarezek, “baina apurka-apurka jende gehiago sartzen hasi zen.

Gaur egun, 200 ikasle inguru ditu Raquel & Nuria dantza akademiak. Gehienak Laudiokoak dira, baina inguruko herrietako umeak ere badaude. Dantza modernoa (jazz, fusion...) ere jorratzen[2] duten arren, ballet klasikoa da akademiaren muina. “Ikasleak 3-4 urte dituztela sartu ohi dira eta 16-17 urterekin uzten dute akademia”, azaldu du Lopezek.

Bukatzen duten ikasle horietako batzuk Madrilera eramaten dituzte orduan, azterketa bat egitera. Hortaz gain, lehiaketetan ere hartzen dute parte, eta ikasturtea amaitzen denean ikuskizun bat egiten dute ikasle guztiek, “urtean zehar ikasitakoa erakusteko”. Aurtengoa ekainaren 21ean izango da, Euskalduna antzokian.

Estatuko Anaprode lehiaketako finalean arituko dira, maiatzaren lehen hiru egunetan, lehen fasean bikaintasuna lortu ondoren

200 ikasle inguru ditu akademiak, 3-17 urte bitartekoak

“Maila gorenenean”

“Inoiz izan duen mailarik gorenenean[4] dago akademia orain”. Ez zaio arrazoirik falta Lopezi. Anaprode Dantza Lehiaketan lortutako emaitzak dira horren froga. Txapelketa horretan akademiako hainbat taldek hartu zuten parte, eta oso emaitza onak lortu zituzten: 9-13 urte bitarteko bi taldek lehen postua lortu zuten, horietako batek epaimahaiak aho batez[5] erabakita. Gainera, bi taldeak “amateur aurreratua” mailara igo zituzten, zuten maila teknikoa zela eta.

Berdina gertatu zen 14-16 urte bitarteko bi talderekin: “pre-profesional” mailara igo zituzten, eta lehenengo postua lortu zuten biek, epaimahaiak aho batez erabakita.

Taldeetan soilik ez, norbanako gisa ere nabarmendu ziren Laudioko akademiako ikasleak: Urtzi Gancedo, Aiara Bilbao eta Paula Urkijok lehen postua lortu zuten euren kategorietan. Amaia Solaun, berriz, bigarren geratu zen. Urkijo izan zen lehiaketa osoan puntuazio altuena jaso zuen dantzaria, eta epaimahaiko kideen zorion beroa jaso zuen horregatik.

Lehenengo postuak lortu zituzten ikasle horiek maiatzeko lehen hiru egunetan dute orain jarrita begirada. Lehiaketaren finalean arituko dira egun horietan, Tarragonan. Lopezek adierazi du irabazten ahaleginduko direla, baina azpimarratu du “gozatu, egindako lanarekin pozik egon eta esperientzia aberasgarria izatea” dela garrantzitsuena.

“Izerdi tantak”

Hala ere, ez da samurra ikasle horien mailara iristeko egin beharreko ibilbidea. “Balletak zerbait badauka diziplina da, diziplinarik gabe ezin da ezer egin”, ziurtatu du Lopezek, “lan ordu eta esfortzu asko suposatzen du. Baina lana serioski hartzen dutenek sekulako kontzentrazio gaitasun, autodiziplina eta autoestimua lortzen dituzte”.

Prestaketa fisiko sendoa izan behar dela ere gaineratu du irakasleak. “Badago balleta hiruzpalau pauso sinple egitean datzala dioen jendea”, hasi da azaltzen, “entsegu batean ateratzen diren izerdi tantak ikusi beharko lituzkete”.

Profesionalizaziorako bidea

Erronkak, baina, ez dira lehiaketetara mugatzen. Ikasle aurreratuenek dantzan karrera bat egin ahal izatea da Lopez ahizpek duten hurrengo xedea. “Ikusten dugu baditugula profesional izatera saltoa eman ahalko luketen ikasleak. Ikasle horiek identifikatu eta bidea egiten lagundu nahi diegu orain”.

BIDEOA: *Raquel & Nuria dantza akademia, barrutik*

Hiztegi lagungarria

Egokitu[1], moldatu / Jorratzen[2], lantzen / Muina[3], oinarria / Gorenean[4], altuenean / Aho batez[5], kide guztiek erabakita

Txani
Rodriguez
IDAZLEA

_Kamerinoa

Guardiako kioskoa

Aste Santuko oporrak izan direla eta, Laudioko Lateorro auzoko liburu-denda itxita egon da. Baina harritu ninduen ikusteak alboko tabernetan egunkariak salgai zeudela. Izozki hozkailu baten gainean zeuden kokatuta, hori ohiko erakustokia izango balitz bezala.

Tabernariak azaldu zidan neurri hori hartu zutela adineko jendean pentsatuta. Geltokiko tunelean lanak egiten ari dira eta igarobide hori itxita dago. Badugu beste tuneletik pasatzeko edo gaineko pasabideak gurutzatzeko aukera, baina adinekoak ohituta daude auzoan bertan, euren etxetik gertu, egunkaria erostera.

Herriaren beste aldera pasatzea, edo gehiegi ibiltzea, eragozpen bat izan zitekeen eurentzat. Denok dakigu zer diren errutinak: betiko tokian kafetxoa hartu, betiko tokian ogia erosi, betiko tokian egunkaria eskatu... Ohiturak edo errutinak aldatu beharko bagenitu, moldatuko ginateke, baina askok nahiago dute mantentzea.

Tabernan prentsa saltzea alternatiba txukuna eta erosoa iruditu zitzaidan. Baina egunkaria irakurtzeko behar hori egiaztatzea izan zen gehien gustatu zitzaidana. “Guardiako kiosko” hori han zegoen badaudelako oraindik pertsona asko prentsa erosteko ohiturari eutsiko diotenak.

Kazetaritzaren heriotzaren berria maiz izan dugu, idatzizko prentsaren hileta iragarri da maiz, baina, ostiral santu horretan alaitu ninduen ikusteak kazetaritzak bizirik zirauela izozki hozkailu baten gainean.

_kultura

BIDEO-LEHIAKETA:

Irrien Lagunak-en lehiaketan saritua izan da Antzinako Andra Mariko ikasle talde bat

Urduñako Antzinako Andra Mari Ikastetxeko ikasle talde batek Irrien Lagunak Klubak antolatutako bideo lehiaketan parte hartu du eta saritua izan da. Bideoaren ekoizpenaren gidaritzapean Jose Mari Gutierrez irakaslea egon da. Aurkeztutako lanean itsasoa Urduñarainо ekartzea lortu zuten ikasleek.

ABESBATZA:

Zazpi kontzertu eskainiko ditu Santa Luzia abesbatzak Ingalaterran

Ingalaterratik bira egingo du Santa Luzia abesbatzak, apirilaren 29tik maiatzaren 4ra bitartean. Zazpi kontzertu eskainiko dituzte koraleko kideek zazpi egun horietan zehar, VII. Cornwall International Male Voice Choral jaialdian. Nazioarteko beste 70 abesbatzarekin batera arituko dira.

LAUDIOKO MUSIKA BANDA:

Arazo ekonomikoei aurre egiteko 10.000 euro gehiago jasoko ditu Musika Bandak

Onartu egin da San Roke Musika Elkarteak Laudioko Udalbatzan aurkeztutako mozioa. Udalaren partetik, urtero, 5.000 euro gehiago jasotzea eskatzen du mozioak, bandaren bizirautea ahalbidetzeko. Orain arte 80.000 euroko laguntza jasotzen zuen. Foru Aldunditik beste 5.000 jasoko ditu.

_kultur leihoa

Lander Arteaga
ZINEMA

Pride

Zuzendariak: Matthew Warchus
Aktoreak: Ben Schnetzer, Monica Dolan, George MacKay, Bill Nighy...
Iraupena: 120 minutu

1984ko udan, Erresuma Batuko Meatzarien Sindikatu Nazionalak (NUM) grebara deitzen du. Londresen, Gay Harrotasunaren Egunaren manifestazioan lesbiana eta gay talde batek meatzarien familiei laguntzeko dirua biltzea erabakitzen du. Baina bere jatorria jakitean, Meatzarien Sindikatuak ez du dirua onartuko. Sindikatua alde batera utziz, lesbiana eta gay taldeak zuzenki meatzariengana jotzea erabakiko du; Galeseko herri txiki batera bidai bat eginez.

Gertaera errealetan oinarritutako pelikula honek Erresuma Batuko iraultza txiki bat erakusten du: meatzarien eta gay taldeen arteko harremana. Eraldaketa sozial handiak bizi izan zituen garai horretan, hain ezberdinak ziren bi talde hauen arteko lanak bien eskubideen borroketan onurak lortzeko balio izan zuen.

Matthew Warchus zuzendari ingelesaren bigarren film hau salaketa soziala hizpide duten pelikulen artean sartu badaiteke ere, bere tonua guztiz dibertigarria da, zoragarria. Aktore talde bikain batez inguratuta (Bill Nighy, Imelda Staunton, George MacKay, Ben Schnetzer,...), filmean kontatzen diren gertakarien zakarkeria samurragoa bilakatzen da aktoreek sortzen dituzten une dibertigarriengatik.

Gogoangarria Dominic West aktorean istorioaren erdian egiten duen dantza, une zoragarri bat.

Filma datorren apirilaren 18an proiektatuko dute Laudioko Lanbide Heziketa Udal Ikastetxean.

ARGAZKILARITZA

"Mendian argazkiak ateratzen hasi nintzen eta bi munduak batu zitzaizkidan"

URTZI VERA (Orozko) argazkilaria da eta duela gutxi Fritz Pölking saria jaso du. Ez da bere ibilbidean jaso duen sari bakarra baina honek ilusio berezia egin dio.

Fritz Pölking saria irabazi du Urtzi Verak. Argazkia: Urtzi Vera

ERREDAKZIOA | **Aitor Aspuru Saez**

Hainbat sari irabazi dituzu zure argazkiei esker. Zein da poz handiena eragin dizuna eta zergatik?

Azken hau izan da poz gehien eman didana, Fritz Pölking saria hain zuzen. Argazki hauek zazpi urtetan eginak daude. Egunez eta gauez egindakoak dira, urteko sasoi ezberdinetan ateratakoak, detaile txikiak edota paisai zabalagoak erakusten dituztenak, teknika bereziekin egindakoak batzuetan... bilduma mamitsua aurkezten saiatu nintzen eta badirudi gustukoa izan zutela.

Zure argazkiak naturari oso lotuta daude. Nondik sortu da harreman hori?

Argazkiekin hasi baino lehen mendia gustukoa neukan. Gainera txikitatik izan dut artearekiko maitasun bat. Egun batean kamera txiki batekin mendian argazkiak ateratzen hasi nintzen eta bi munduak batu zitzaizkidan.

Zure ustez, zein da argazki on bat egiteko sekretua?

Gauza gehienetan bezala, sekreturik handiena lan egitea eta trebatzen joatea dira. Inspirazioa eta bestelako mirariak lanarekin etorri ohi dira. Eta horretarako gasolinarik hoberena egiten duzuna gustukoa izatea da. Ez dago sekretu handirik, beraz.

Zer eman dizu eta zer kendu dizu argazkigintzak?

Buruhauste batzuk eman dizkit. Eta susto txikiren bat ere bai. Hala ere, denbora ugari kendu didan arren, naturan pasatako denbora ez dut uste galdua izan denik. Guztiz kontrakoa, ordea. Hori gutxi balitz, denborarekin begiratzeko modu berezi bat hartzen duzu. Eta badirudi gauzen edertasuna sumatzeko gaitasuna handitzen zaizula.

Koreografia lehiaketa, Lamuza Parkearen alde

ERREDAKZIOA | Lucia Menoyo

"Parkearen alde mugi zaitez" lemapean koreografia lehiaketa antolatu dute. Taldeek 3 eta 6 pertsona artekoak izan behar dute, eta adin guztietako dantzazaleei irekita dago lehiaketa.

Koreografia berriak eta orijinalak eskatzen dira, eta3 eta 5 minutu arteko iraupena izan behar dute: musika eta dantzaren estiloa erabat librea da. Izena emateko, mezua idatzi behar da lamuza@sosparkea.com helbidera. Apirilaren 28an amaituko da epea.

Lehiaketaren kartela.

Saria, Berlinera bidaia

Koreografiak publiko aurrean aurkezteko sailkapen txandak Laudioko hainbat lekutan egingo dira. Finala 2015eko maiatzaren 31n izango da. Irabazle eta sari bakarra egongo da: Berlinera bidaia kulturala.

Anuntxi Arana
ANTROPOLOGOA

_Lurpetik

Prakagorriak (I)

«Familiariak» ere deitzen zaie eta oso ospetsuak dira gure mitologian, bereziki beren jabearendako egiten dituzten lan harrigarriengatik. Beste herrialdeetan ere badira antzekoak, besteak beste "ira-hazia". Ingalaterran, Frantzian, Errusian, Austrian, Alemanian, Italian... ezagunak ziren hazi horrek ei dituen indarrak: gaixoak sendatzen ditu, fortuna ekartzen du, altxorrak non dauden erakusten, ikusezin bilakarazten...

Data zehatz batzuetan biltzen ei da, solstizioetan batez ere eta horrela eginez: iratzearen azpian izara bat zabaltzen da -gauerdian komunzki, orduantxe loratzen baita- eta kontu handiz gordetzen da gero, haren bertuteak baliatzeko. Deabruaren engainua baizik ez zela zioen De Lancre-ek, sorginek ere batzen zutelakoan.

Suabian, oso errito zorrotzak bete behar zituen ira-hazia lortu nahi zuenak. Abendu osoan ez zuen otoitzik egin behar, ez eta elizara joan edo ur bedeinkatua ukitu. Gabon gauean bidegurutze batean egon behar zuen, iratxo triskarien aurrean irmo eta arbasoen arimen galderak jasaten; horiek denak ongi bururatzen bazituen deabrua agertzen zitzaion ira-haziz beteriko paperezko kukurutxo bat emateko. Holakoa daukanak hogeita hamar gizonek beste lan egin dezake egunean eta laster aberasten da; baina gutxik dute luzaz atxikitzeko ausardia. Kontatzen zen Rotenburg hirian deabruak emandako ira-hazia zeukan ehule batek larunbatetan bakarrik lan egiten zuela eta beste ehuleek baino askoz oihal gehiago ekoizten zuela; haren emaztea, oihala entregatzera zihoan batean, elizaren ondoan pasatu eta barrura sartu zen; eta otoitz egiten zuen bitartean, saskian zeraman oihal guztia hari bihurtu zela berriz.

_kirola

KICKBOXING

"Borrokatzen zaudenean burua kontrolatzea da garrantzitsuena"

IKER ARZA (Laudio, 1992) Euskadiko Txapelduna da Kickboxing K-1 kategorian. Bere aurkaria lurrean utzi zuen norgehiagoka horretan. Urteak daramatza kirol hori praktikatzen eta anaiarekin batera dabil Laudioko Klubean.

ERREDAKZIOA I Gentza Garcia Mendieta

Zorionak Iker, imajina daiteke txapela egongelako lekurik ikusgarrienean eskegita izango duzula, ezta?

Gainontzeko lehiaketetako garaikurra[1] bezalakoa da baina bai, nola ez, etxeko toki pribilegiatu batean dago jarrita.

Borroka Amorebietan izan zen eta beti bezala lehia baino lehen pisatu egin gintuzten, izan ere, pisuaren arabera Kick Boxing edo K-1 egiten dugu. Bigarren kategoria horretan nengoen ni eta zorte puntu pittin[2] batekin kolpe ona eman nion aurkariari eta lurrera bota nuen.

Nola izan zen zeure lehenengo kontaktua Kick Boxing-arekin?

Betidanik izan naiz nahiko kirolaria, hainbat kiroletan saiatu naiz txikitatik, eta nire anaia nagusia hau frogatzen hasi zenean harekin saiatzea proposatu zidan. Zenbait urteren bueltan hemen gaude biak Laudioko Kickboxing kluba tantaz tanta aurrera eramaten.

Zer da garrantzitsuena kirol honetan?

Duda barik[3], burua kontrolatzea da garrantzitsuena Kick Boxing-ean. Urduritasunak edo nerbioek garaitzen bazaituzte akabo, ez dio axola aurkaria ona ala txarra den, ez dago zer egin.

"Garrantzitsuena ongi pasatzea eta entrenamendu zein lehiaketei zuku osoa ateratzea da"

"Guztiok dakigu zertara goazen eta ring barruan geratzen da dena"

"Oso kirol garbia da kickboxing-a"

Zein da, zure ustez, Kick Boxing-aren osasuna Aiaraldean?

Nahiz eta 5 edo 6 urteko ibilbidea duten orain dela gutxi hasi dira ezagunak egiten zenbait talde inguruan, jendea geroz eta gehiago interesatzen hasten da, eta hori sintoma ona behar du izan. Laudioko klubean 30 bat kide bildu gaitezke entrenamendu batean.

Ezaguna da errugbian, adibidez, jokalarien arteko harremana eredugarria izan ohi dela. Zer nolakoa da borrokalarien artekoa behin lehia amaituta?

Borroka amaitutzat ematen den unean bertan, ring-aren barruan, betidaniko ezagunak bagina bezalako kidetasuna sumatzen da gehienetan. Pertsonaren araberakoa da hori nahitaez, baina lagun asko egin ditut nik, behintzat, kirol honetan. Guztiok dakigu zertara goazen, beraz ring barruan geratzen da dena.

Gurasoek edota familiartekoek ere horrela ikusten al dute?

Hasieran behintzat ez, zaila da kanpotik ikusten duenarentzat, baina geroz eta gehiago ulertzen dute nola doan hau eta oso kirol garbia dela. Beste asko baino gehiago.

Behin Euskadiko K-1 kategoriako txapela lortuta, non dago Iker Arzaren muga?

Pixkanaka geroz eta txapelketa gehiago egitea eta emaitza onekin jarraitzea da nire jomuga baina garrantzitsuena ongi pasatzea eta entrenamendu zein lehiaketei zuku osoa ateratzea da.

+info: BIDEOA
Laudioko Kickboxing Kluba

Hiztegia

Garaikurra, saria[1] / Pittin[2], apur bat / Barik[3], gabe

Ehun gimnasta baino gehiago arituko dira VIII. Aresketa Txapelketan

EAEko hainbat klubek hartuko dute parte lehiaketan. / Phil Bence

ERREDAKZIOA I

Apirilaren 19an izango da Amurrioko gimnasia artistikoko Aresketa taldeak antolatzen duen txapelketaren VIII. edizioa. Bañueta kiroldegian izango da zita, 9:30etatik aurrera. Lau ordu inguru iraungo ditu topaketak.

Norgehiagokan Hego Euskal Herriko hainbat taldek parte hartzea dago aurreikusia, orotara 115 gimnasta, klubeko arduradun den Gorka Ladislaok aurreratu duenez. Helburua aurreko urteetako berdina dela azpimarratu du Ladislaok: "gimnasia erritmikoaren mundua herrira hurbiltzea". Aresketako kideak gaineratu du taldea "geroz eta izen gehiago" hartzen ari dela, "ez soilik, EAEn, baita Estatu osoanere".

Euskadiko Txapelduna

Badute zer ospatu Aresketa Klubeko kideek, bertan dabilen Nerea Monasterio garaile atera baitzen Leioan egindako Euskadiko Txapelketan. Datorren astean Espainiako Txapelketan lehiatzera joango da Monasterio, klubeko beste bost kiderekin batera.

Horretaz gain, Eskolarteko Arabako Txapelketa hasiko da laster, eta Aresketakoek hainbat modalitateetan lehiatzeko asmoa dute.

Orozkotik koordinatuko dute munduko 13. leizerik sakonerainoko kanpaina



Ilaminako Ateeneko leizea munduko 13. haitzulo sakonena da. / Phil Bence

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

2015eko Larrako espeleologia kanpaina Orozkoko zenbait espeleologok koordinatuko dute, besteak beste. Larrako eremu karstikoan -Nafar Pirineoa- espeleologia kanpaina zientifikoa gauzatuko da udan, Euskal Espeleologoen Elkargoaren eta Nafar Espeleologia Batzordearen eskutik.

Ilaminako Ateeneko Leizean -BU-56, munduko 13. leizerik sakonena- buru belarri arituko dira. Ekaina bitartean prestaketetan murgilduta ibiliko dira uztailean kanpamendu nagusia antolatzeko, eta abuztuan espeleologia jardunari ekingo diote. Aiaraldeko espeleologoen partaidetza nabarmena izango da.

_kirola

MENDIZALETASUNA:

Maiatzaren 24an izango dira Burdin Hesia mendi martxa eta lasterketa

Maiatzaren 24an izango dira Burdin Hesian barrena joango diren mendi martxa eta lasterketa. Lasterketaren III. edizioa izango da. Martxa, berriz, aurten egingo da lehenbiziko aldiz. Biak ala biak Bilbon hasi eta Laudioko Lamuza Parkean bukatuko dira. ehkirola.eus webgunean eman daiteke izena.



TAEKWONDO:

Zilarrezko bi medaila eta brontzezko bat lortu ditu Laudioko Taekwondo Klubak

Ez ziren esku utzik itzuli Laudioko Taekwondo Klubeko kadeteak kirol horren Euskadiko Txapelketatik. June Ibarrolak eta Saioa Casalesek zilarrezko medaila lortu zuten. Yerai Alonsok, berriz, brontzezkoa irabazi zuen eta Maider Astobiza, bere aldetik, laugarren postura iritsi zen.

TXIRRINDULARITZA:

Gualdetxu MBT Taldeak "Urduña Hiria" gau-martxaren III. edizioa aurkeztu du

Urduñako Gualdetxu MBT taldeak proba berezia antolatu du beste urte batez Otxomaio jaien harira: Urduña Hiria Gau Martxa. Aurten maiatzaren 16an egingo da, gaueko 22:00etan hasita. Bi ibilbide izango ditu, luzea 27 km-koa eta laburra 13,5 km-koa. Urduñako plazatik abiatuko dira biak.

ATLETISMOA

"Euskadiko Atletismo Txapelketan ere marka ona lortzea espero dut"

ABIGAIL ORTIGÜELA USSIA (Laudio, 2000) 5. postuan geratu da pista estaliko atletismo txapelketan. Baina pista estalirik gabe prestatu da lasterketarako.

Laudioko Atletismo Klubean dabil Hortigüela. Argazkia: Abigail Ortigüela

ERREDAKZIOA I **Aimar Gutierrez**

Nolakoa da pista estaliko proga baterako prestatzea pista estalirik gabe?

Beno, guk Laudion ez dugu pista estalirik, beraz pista irekian entrenatu behar dugu. Eguraldi txarra egiten badu ere entrenatzera irten beharra dago. Nahiko deserosoa da euria egiten duenean, baina moldatzen gara.

Nolako esperientzia izan da txapelketa?

Oso positiboa, oso pozik etorri naiz. Klubetik ni bakarrik joan nintzen, nire entrenatzailearekin batera, ni bainaiz pista estalian korrika egiten duen bakarra. Gainontzekoek krosa egiten dute pista estaliko denboraldian. Txapelketan, nire marka mantentzea lortu nuen eta hori oso positiboki baloratzen dut.

Nolatan zara pista estalian korrika egiten duen klubeko bakarra?

Ni abiadura-lasterkaria naiz, klubeko gainontzeko kideek erresistentzia lantzen dute gehiago. Horregatik, lehen esan bezala, sasoi honetan nik pista estalian jarduten dute eta gainontzekoek krosean.

Zer nahiago duzu, pista estalia ala irekia?

Aukeran nahiago dut aire librean korrika egitea. Azpiegitura askoz handiagoa da pista estalian baino, gehiago gustatzen zait.

Orain pista estaliko sasoia bukatu dela eta pista irekiko sasoia hastear dagoela, zer erronka dituzu?

Pista irekian 300 metro eta 100 metroko kategorietan hartuko dut parte. Nire helburuetako bat Espainiako txapelketarako marka minimoa lortzea da, baina gehien bat, ondo pasatzea eta disfrutatzea da nire helburu nagusia.

Euskadiko Txapelketa ere tartean da, hor ere marka ona lortzea espero dut.

Marokoko Toubkal mendira bidaia (4.167 m)

"Esperientzia errepikatzeko asmoekin... Insha´Allah!"

Itxaso Ayesa

Martxoaren 27an Mendiko Lagunak taldeko 50 lagun irten ginen Marokoko Atlaserantz, Toubkal mendira igotzera.

Bidaia luze baten ondoren, hurrengo gauean Marrakechera iritsi ginen.

29an Toubkaleko maldara arte eramango gintuen trekkinga hasi genuen. Hiru egunetan zehar, lur gorriko pasai bolkanikoak, ur-jauziak, ibaiek ureztatzen zituzten larre berdeak, sagarrondo eta gereziondoz betetako ortuak eta kolorez eta jolasean zeuden umez betetako hainbat herrixka bereber gurutzatu genituen bertoko meskiten minaretetatik almuedanoek jendea otoitzera deitzen zuten bitartean.

Gehienetan bertoko jendearen etxeetan egiten genuen lo eta egunen batean kanpin dendatan edota "jaima"n; tea, "harira", "tajin"a eta herrixketan erosten genituen laranja zuku gozoak gure elikagai nagusia zirelarik.

Martxoaren 31n "Santuario"ra iritsi ginen. Handik irtengo ginen Toubkal igotzeko. 1900 metrotako desnibela eta 14 ordutako ibilaldia geneukan aurretik.

Asteazkenean, kranpoi, piolet, ura eta janariz betetako motxilak hartuta, tontorrerantz abiatu ginen 44 lagun, Sliman, Ahmed, Abdul eta Lahsen gida bereberrez lagunduta.

Erraz ailegatu ginen aterpetxera eta horrek animo handia eman zigun gure bidea jarraitzeko. Hortik aurrera bidea gogortzen joan zen, baina taldearen indarrak bultzatuta, eguerdiko ordu bietarako 40 lagun geunden han, emozioz beterik, gure garaipena ospatzen. Lortu genuen!

Beste bi egunetako trekkinga egin ondoren, apirilaren 4an Essaouira izeneko kostaldeko herrira ailegatu ginen. Zibilizazioan berriro... Berehala murgildu ginen hango giro bizigarrian: portuko arrantzaleen jarduera frenetikoa, medinan aurkitzen ziren dendatxoen usain, testura, zapore, soinu eta koloreak, jendearen joan etorria...

Mendi eskia praktikatzen igaro dute asteburua / Mendiko Lagunak

Bidaia ahaztezina...

"Sucram" bihotz-bihotzez azken orduko aldaketen aurrean jarrera positiboa izan duten pertsona politez beteriko talde honi eta bidean hainbeste lagundu gaituzten gidari talde guztiari.

Esperientzia errepikatzeko asmoekin itzultzen gara beti... Insha´Allah!

+info: BIDEOA
Bidaiaren kronika

_Herriko plaza

_agurrak

Gonzi

Asko daukagu alaitzeko, dantzatzeko eta bizitzeko. Hurrengo 18ak gurekin izan daitezela! Zorionak!

Ziripot eta Aitor

Zahira

Zorionak etxeko txikiari!! Jaso 19 muxu eta besarkada handi-handi bat etxekoen partez!

Etxekoak

A.G.A

Zorionak Amurrioko Gazte Asanbladako kide guztiei! Jaso zortzi muxu eta segi borrokan!

Laudioko Gazte Asanblada

Clemente

Zorionak zure familia eta Nikolasen partetik!! Besarkada handi bat eta urte askotarako!

Etxekoak

_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera maiatzaren 1a baino lehen.

_denborapasak

	Pisua / Harilak	▼	❖ Irmoak, sendoak	▼	❖ Erro, sustrai	▼		Aholegar
▶			▼		▼			▼
	Mirakulu / Handitasunez	▶						
▶								
Aurkaria / Suzko iskilu zaharra	▼	Lehen biak / Kantatu	▼	❖	Andeetako xirula / Modu atzizkia	▶					Ezordu
▶		▼		▼	▼			Herri hizkeran, zer / Indioaren ikurra	▶	▼
Europar Batasuna / ❖	▶		Haragia biltzeko mintza / Txistu, istu	▶			Joan den urtean / Sortu zintuenak	▶ ▼		
▶			▼		Lapurdiko udalerria / Bokala	▶	▼			
Isurki bat jarioarazi / Bizkaieraz, dut	▶				▼	1000 / Errepikatuz, gorotza	▶	Ez eme / Biarritz Olympique	▶	
▶			Tona, labur-labur / Potasioaren ikurra	▶	Burdinazko hari / Kontsonantea	▶ ▼		▼		
Mauka	▶		▼		▼				Nitrogenoa	▶

❖ Laudioko auzoak

OSO ERREZA

		1	5	2	7	6		8
		2						5
	9	5	6		8		4	3
	7	4				8		
	5		8	7				
3				4				
5		9	2		3		7	6
	8	7	4	6		5		
6	4	3	7		5			

ERREZA

						2		
				5	8	3		
7	8			2	4		5	
			4		2			
		7		8		4	6	
3				7		5	8	
8	3			9		7		
6		4			7			3
		5		4	3	6		

ZAILA

	5							
	4		2		1	8	7	
					6			1
	7		1			9	8	
	1	9			5		2	
	2			9				7
1						6	9	4
		5		1	9			
				3	8	2	1	

OSO ZAILA

	9		6	5				3
	8		7	9				4
	6				3	8		
				8				
5					2			
			5			3		
	1	9		7			4	
								1
3		8				5		

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai:
http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18

Udaberria heldu da! Eguzkia atera da! Oporrak! Ez daukazu aurpegi hori izateko aitzakiarik! Garai polita da oraingoa, larre berdeak, koloredun loreak, usain gozoak... antolatu ezazu zure eguna zure zentzu guztiek oparitu ahal dizutenaz gozatzeko!

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20

Entzun nahi ez duzuna entzutean ez ezazu zure burua defendatu indarraren bitartez. Asko balio du indarrak, bai, baina gehiago balio du buru azkarra izateak. Ezjakintasunak irabazteko indarra erabiltzen du, jakintsuaren ahalmena aldiz hitza da beti. garailerik onena!

HERENSUGE
03.21-04.20

Zuretzat eguraldi txarra ez da existitzen! Beti izaten duzu irribar gozo bat ingurukoentzat. Miresgarria da zoriontasuna aurkitzeko daukazun ahalmen hori, konpartitzen jarraitu ezazu baina ez gauza materialekin, zure konpainiarekin baizik!

LAMIA
04.21 - 05.20

Beti eskatzen zabiltza, asko izatea ez da zure helburua izan behar, izan ere, aski ez duenak deusik ez duena baita. konformatzea eta amore ematea ez da gauza bera, daukazunaz jabetu eta harro egon behar zara baina zailtasunak gainditzen saiatuz beti, aurrera!

BASAJAUN
05.21 - 06.20

Balaztarik gabeko zure buru hori gelditzen ikasi behar duzu, eguneroko gauzak disfrutatzen utzi, burua bezala gorputza askatu, libre utzi, lotsak ahaztu eta aldakak mugitu, burua eta gorputza bat baitatoz, horietako bat aldatuz gero bestean eragina izango du, ikusiko duzu!

BASANDERE
06.21 - 07.20

Ameslari hutsa zara, ametsak izatea garrantzitsua da eta hauek jarraitzeko egin beharrekoa egitea ere ondo dago, beti ere dena ahaztu barik eta ematen diren urratsak ondo pentsatuta eta ondorioak gogoan izanda, ez dena arriskatu egiten ari zarenaz ziur ez bazaude.

GAUEKOAK
07.21 - 08.21

Seme-alabak itota dituzu! Ondo dago nahi duten gauzetan apuntatzea baina tira, tope bat jarri beharko diezu ezta? Umeak dira, eta haurtzaroa oso arin pasatzen da, utzi diezaiegun ere garai horretaz disfrutatzen!

JENTILAK
08.22 - 09.22

Astero juergak botatzea ez dela ona argi dago, baina noizbehinka asteko tirabirak ahazteko poteren bat hartzea gomendagarria da. Sagardotegi garaia dela aitzaki bezala erabili, burua animatu eta lagunekin txotx batzuetaz gozatu!

AKERBELTZ
09.23 - 10.22

Inoiz egon zara txerritegi batean? Ba...tira, zure logelaren antza dauka! Amaren aholkuak jarraitu beharko zenituzke. Txukuntasuna zaindu gurasoen osasunerako, baita gonbidatuen aurrean sorpresarik ez izateko ere!

MARI
10.23 - 11.22

Sukaldari trebea ez zarela badakite etxekoek, gogoa eta arreta jartzen ez duzun bitartean ez duzu ezer lortuko. Oso erraza da, etxean daukazun amonaren errezeta liburua hartu eta pausuak jarraitzen joan, arrautzak irabiatu, gatz pittin bat bota... eta jateko prest!

ZIRIPOT
11.23 - 12.20

Logale zabiltza azkenaldian, buruhausteak ez dizute deskantsatzen uzten. Saiatu kezkatzen zaituena konpontzen buruak deskantsua har dezan!

SUGAAR
12.20 - 01.19

Zure arazoak ez bihurtu besteen arazo. Denok ditugu une txarrak baina ingurukoak ez dira normalean errudunak. Saiatu zailtasunen aurrean pazientzia garatzen!

_irakurlearen txokoa

_agenda

04.16 OSTEGUNA

17:00 ARESPALDITZA
NAGUSIENTZAKO IKASGELAK
Ondare historikoa landuko dute eta gimnasia saioa
Udaletxea

19:30 LAUDIO
SAN PRUDENTZIO
Danborrada entsegua
Rakataplak antolaturik
Aldai Plaza

04.17 OSTIRALA

17:00 OROZKO
II. EUSKAL DANTZA ASTEA
Umeentzako tailerrak, herri kirolak, topaketa
Frontoia

19:00 AMURRIO
HITZALDIA
Stop TTIP, Orain Amurriok antolaturik
Katekesi Aretoa

19:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
San Martin
Goikiriako Txokoa

04.18 LARUNBATA

08:00 LAUDIO
MENDI IRTEERA
Saioa mendira, Goikogane Mendi Taldeak antolatutako ekintza
Institutua

08:00 ARTZINIEGA
MENDI IRTEERA
Peña Mayor-era Ganzorrotz Mendi taldearekin
Frontoia

10:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
Zaloa
Zaloako Baseliza

11:30 LAUDIO
IRTEERA SAGARDOTEGIRA
Berbalagun taldearen eskutik
Institutua

12:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
Ibarra
Urigoitiko eliza

18:30 OROZKO
II. EUSKAL DANTZA ASTEA
Erakustaldia, pintxoak, erromeria eta zozketa
Frontoia

19:00 AMURRIO
MAGIA IKUSKIZUNA
Yunke
Amurrio Antzokia (7€)

22:00 LAUDIO
HIP HOP REGGAE GAUA
Luzifer, Modo Neutro, Kenke Potente eta Positive Bomb irratsaioko kideen parte hartzearekin
Gaztetxea

22:00 LAUDIO
KONTZERTUA
The Capaces, Madjive eta DJ Misantropic High
Orbeko Etxea (5 €)

EUSKOTARRAK KOADRILAK 50 URTE

04.18 LARUNBATA
AMURRIO

12:00 Argazki mosaikoa Herriko Plazan. Jarraian pregoia eta txupinazoa.
13:00-15:00 Txistu-poteoa herritik.
15:00 Bazkaria Matiasen
16:30-21:00 Umeentzako puzgarriak eta zezen mekanikoa
17:00 Euskal dantza tailerra
18:00 Txokolatea eta dantzaldia Xabino eta Rafa Pinedoren eskutik
21:00 Odoloste jana
22:00 Argazki proiekzioa
23:00 DJ Pingüi

04.19 IGANDEA

08:30 LAUDIO
UMEENTZAKO AISIALDIA
Goikogane Taldearen mendi irteera
Institutua

II. EUSKAL DANTZA ASTEA

04.19 IGANDEA
OROZKO

11:00 Dantzarien kontzentrazioa
12:00 Dantza alardea
14:30 Bazkaria eskolan
17:00 Euskal Dantza Ginkana
18:30 Erromeria

09:30 AMURRIO
GIMNASIA ERRITMIKOA
VIII. Aresketa Txapelketa
Bañueta Kiroldegia

10:00 LAUDIO
OXIGENOA EUSKARARI
Orientazio lasterketa
Institutua

12:00 OROZKO
AUZO BATZARRA
Ibarra
Urigoitiko eliza

17:00 MAROÑO
IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN
Korri eta Salto pailazoak
Eliza

04.20 ASTELEHENA

09:00 LAUDIO
IKASTARO HASIERA
Orgatilak erabiltzeko
Garapen Agentzia

17:00 URDUÑA
HITZALDIA
Legeria eta berdintasun politikak
Alondegia

04.21 ASTEARTEA

19:00 URDUÑA
BATZAR IREKIA
1. sektorea, EH Bildu
Kultur Etxea

04.22 ASTEAZKENA

09:00 LAUDIO
IKASTAROA
Twitter sare soziala
Garapen Agentzia (25 €)

16:30 LAUDIO
HITZALDIA
Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak
Kultur Etxea

04.24 OSTIRALA

15:30 AMURRIO
SAN PRUDENTZIO
Haur danborrada
Juan Urrutia Plaza

17:15 LAUDIO
SAN PRUDENTZIO
Haur danborrada
Herriko Plaza

22:00 MENOIO
SAN MARKOS JAIA
Txupinazoa, suziriak, kafea eta pastelak

04.25 LARUNBATA

08:00 LAUDIO
MENDI IRTEERA
Elke mendira Goikogane Mendi Taldearen eskutik
Institutua

13:00 ARRANKUDIAGA
SAGARDOTEGI EGUNA
Barrikotea eta bazkaria
Gizarte Etxea

ZINEMA

04.18 LARUNBATA

"PRIDE" LANBIDE HEZIKETA UDAL IKASTETXEA 17:30ean eta 20:00etan (3€)



04.196 IGANDEA

"PIM ETA POM" AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean (3,60 €)

"SAMBA" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80 €)

03.02 ASTELEHENA

"SAMBA" AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan (3,60 €)

04.25 LARUNBATA

"FUERZA MAYOR" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA ESKOLA 17:30ean eta 20:00etan (3 €)

04.26 IGANDEA

"LA LEYENDA DEL SANTUARIO: CABALLEROS DEL ZODIACO" AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean (3,60 €)

"PRIDE" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,80 €)

_ezin galdu

DANBORRADAK: San Prudentzio jaia gerturatzen ari dela eta, haur eta helduek danborradak egingo dituzte hainbat herritan. Apirilaren 24an Amurrion 15:30etan eta Laudion 17:15ean izango dira hitzorduak eta Aiaran aldiz, apirilaren 28an eguerdiko 13:00etan.

SAGARDOTEGI EGUNA: Arrankudiagako Gizarte Etxean apirilaren 25ean Sagardo-Barrikotea ireki eta goizean trikitilariek giroa alaituko dute. 14:30ean bazkalduko dute eta ostean Mus Txapelketa jokatuko da. Gainera arratsaldean Gure Esku Dago ekimenarekin bat egingo dute.

Jimmy jazz gasteiz

APIRIL 24 // DECIBELIOS + Los Ruidos
21:00 (15 + gastuak / 18 €)

APIRIL 25 // ANESTESIA + Osso
21:00 (8 + gastuak)

MAIATZ 9 // BAND OF FRIENDS
A celebration of the music of RORY GALLAGHER
21:00 (18 € + gastuak /23 €)

MAIATZ 14 // THE MUGGS + ELDORADO
21:30 (12 + gastuak / 16 €)

MAIATZ 15 // GUADALUPE PLATA
21:00 (12 + gastuak /15 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre higiezinen agentzia

PISUA SALGAI ARETAN
Prezioa: 90.000 €
56 m2, 2 logela, eraberritutako bainugela, altzariz hornitutako sukaldea, egongela, balkoia, trastelekua prezioaren barne, negoziagarria
Erref.: 167.576

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 134.000 €
90 m², logela 3, bainugela 2, sukaldea balkoiarekin, igogailua, trastelekua, garajea, Babes Ofizialeko Etxebizitza
Erref.: 167.567

PISUA SALGAI MENAGARAIN
Prezioa: 210.000 €
Baserria, 270 m², beheko solairuaz, lehenengo solairuaz eta txapitula erako solairuaz osatuta, 260 m²-ko loralegi mugakidea du, eraberritzeko.
Erref.: 167.578

PISUA SALGAI ARAKALDON
Prezioa: 252.000 €
Atxikitako etxe berriak, 137 m², 3 logela, 2 bainugela, komuna, sukaldea, egongela tximenearekin, 100 eta 350 m² arteko loralegia, 2 autoentzako garajea eta trastelekua prezioaren barne.
Erref.: 167.390

PISUA SALGAI LEKAMAÑAN (AMURRIO)
Prezioa: 305.000 €
172 m², 3 logela, 2 bainugela, komuna,sukaldea jakitokiarekin, jantokia, egongela tximenearekin, garaje eta trastelekua prezioaren barne, 2 arkupe, 1.150 m² lursaila inguruan zelai, etxola, ortu eta barbakoa.
Erref.: 167.562

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: kontsultatzeke
89 m², 3 logela, bainugela, jakitokia, sukaldea balkoiarekinm egongela, igogailua, tratelekua prezioaren barne.
Erref.: 167.584

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_kontra

aiaraldea.eus

Edorta Moreno

Bill Esparta

"Egon naizen sumendietan elurra zen salbatzeko aukera bakarra, bestela ez zegoelako urik"

BILL ESPARTAk (1966, Arrankudiaga) "Supervolcanes" bidea egin du: "Arrisku handiena da erreskate zerbitzurik ez dagoela; gertuen dauden mendizaleak 300 kilometrora daude, baina aklimatatu gabe".

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Esparta ala Espartakotik, nondik duzu gehiago?

Ba al zenekien Espartan sekulako mendia dagoela? Bitxia da baina espartanoek, gerlariek, sekulako harremana zuten mendiarekin. Bertara joaten ziren prestatzera. Hemen ere mendizaletasuna oso ohikoa da, asko gustatzen zaigu, baina dirua eta denbora biak behar dira.

Euskal Herrian mendira joateko ohitura handia dago. Sumendietara igotzeko ere?

Sumendiak itzalita zeuden; bada bizirik dagoen baten bat, baina ez dago labea pizteko arriskurik. Ojos del Saladon (Catamarcan, Argentina eta Txile arteko mugan) magma zuten laku txikiak zeuden.

Nik abentura urtarrilaren 23an hasi nuen. Bi aste eman nituen. Garai hau txarra da ur gutxi dagoelako eta sumendiak lehor daudelako. Berez basamortua da, elurretik ateratzen dute ura. Hortaz, lehor badago ez duzu ura edateko aukerarik; elurra dagoen puntuetan (oso altu) soilik lor liteke ura. Sumendien bidea egiteko Fianbalára joan behar duzu. Arrankudiaga bezalako herri bat da, ez du galbiderik! Berez 7. 160 kilometroko zeharkaldia da, 9000 metroko desnibelarekin.

Arrisku handiena da erreskate zerbitzurik ez dagoela, oso altu zaude eta gertuen dauden mendizaleak 300 kilometrora daude, baina aklimatatu gabe. Hara heltzean esan zidaten lehenengo gauza sumendiak lehor zeudela eta erreskate zerbitzurik ez zegoela izan zen. Horrek ez ninduen beldurtu, beti duzu-eta atzera egiteko aukera. Ni egon naizen sumendietan elurra zen salbatzeko aukera bakarra, bestela ez zegoelako urik.

Mendian bakardadeak ez dizu beldurrik ematen?

Ez, ohituta nago. Sumendien ibilbidearen jarraipena satelite bidez egin ahal izateko gailu bat eraman nuen, ezer gertatzekotan non nengoen jakin zezaten.

Sustorik izan al duzu inoiz?

Aconcaguan ekaitz batek harrapatu ninduen eta gaua 140km/h haize boladekin igaro nuen. Dendak harriz beteta zegoelako iraun zuen, eta inguruan harri eta elurrarekin 60 zentimetroko harresia eraiki nuelako. Gorbeiara zikloginesiarekin ere igota nago, beraz, hemen ere prestatu liteke.

Zer eraman zenuen motxilan?

Wikiloc webgunean "Supervolcanes" jarrita agertzen da, edo "Ojos del Salado" idatzita. Bertan eraman nituen gauzen bideoa dago.

Mendian pioleta airbaga bezalakoa da, hobe da ez erabiltzea baina beti eraman behar da.

Aurrera begira baduzu buruan beste erronka edo gailurrik?

Ekainean Broad Peakera igo nahi dut.

Horretarako entrenamendua gogorra izango da, ezta?

Untzuetara korrika joatea! Pirinioetara askotan joaten naiz "galtzera". Zailtasun nagusia ekonomikoa da. Hemengo mendizaleei dirua emango baliete Bizkaian zortzimilakoak egiten dituzten mila lagun leudeke!

Belate
Olabarria
HEZITZAILEA

_Leihotik

Izar berdeak

Ume jaio berriak dena behar du; dena eman, egin, esan behar zaio. Urteak aurrera egin ahala, dependentzia gero eta txikiagoa da. Umetan; gutxi bada ere, erabaki batzuk hartu behar izango ditu, nerabezaroan sarritan egin beharko du zirt edo zart eta heldutasunean bere esku izango ditu erabaki gehienak, horretarako gaitasuna omen duelako. Gure inguruan ditugun ume askok bere nahia lortzeko, borroka egitea, musu ematea, negar egitea, barkamena eskatzea eta abar erabakitzen dute momentu askotan. Nerabe askok "paga" zineman, arropan edo parrandan gastatzea erabakitzen dute. Helduok ere askotan erabaki behar dugu zertan gastatu dirua, zertan eman gure aisia, zein jaialditan parte hartu…. Azken finean, denok hartu behar ditugu erabakiak noiz edo noiz. Euskal Herria adinez nagusia da. Umetan, bere lurrengatik borroka egitea erabaki zuen, gaur egun "paga" nola gastatu erabaki behar du etengabe, baina, horrez gain, aisialdia zertan eman erabaki beharko luke, zein jaialditan parte hartu… Azken batean, independentea izan beharko luke zirt edo zart egiteko. Goazen elkarrekin independentziarako bide hori urratzera!

OrduWare
INFORMATIKA ZERBITZU TEKNIKOA
WWW.ORDUWARE.COM
GRAN VIA 10,SOLAIRUARTEA
48460, URDUÑA (BIZKAIA)
945 03 26 46
669 20 82 99
616 61 24 87
INFO@ORDUWARE.COM
PRESUPUESTOS@ORDUWARE.COM
ORDENAGAILU KONPONKETAK
INSTALAZIO ETA KONFIGURAZIOA
ANDROID MUGIKORREN KONPONKETA
VIRUS ETA MALWAREEN EZABAKETA
DATUEN BERRESKUPERAKETA